

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2020KO EKAINA


Euskal AEko industria-jarduera % 17,8 jaitsi da 2020ko ekainean

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2020ko maiatza, industria-sektoreak % 16,8 egin du gora ekoizpenean

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa % 17,8 murriztu da 2020ko ekainean, 2019ko ekainaren aldean. Jaitsiera hori txikiagoa izan da joan den maiatzekoa baino, noiz urte arteko konparazioan galera % 27,8koa izan baitzen.

Ekaina aurreko hilabetearekin (2020ko maiatza) alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioak % 16,8 egin du gora, behin urtaro-eraginak zuzenduta.

2020ko lehen sei hilabeteetako balantzea industria-jardueraren % 17,2ko uzkuertze metatuarekin itxi da.



2020ko ekaineko indizearen bilakaera, 2019ko ekainarekin alderatuta, negatiboa da industria-sektore handi guztietan. *Bitarteko ondasunak* % 23,0 jaitsi dira, eta *Ekipo-ondasunak*, berriz, % 13,5. Lehenengoen artean daude metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa edo kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa; bigarrenen artean, berriz, ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialaren egitea edo aireontziak edo itsasontziak egitea.

Kontsumo-ondasunak, oro har, % 10,6 jaitsi dira urtetik urtera, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 17,2 jaitsi baitira, eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrak*, berriz, % 9,1 murriztu baitira. *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* epigrafean altzariak, etxeko tresnak edo produktu elektronikoak fabrikatzeko jarduerak daude. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienerako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Energiak % 17,1 egin du behera, behin zuzenduta dagozkion egutegi-efektuak. Sektore horretako jardura azpimarragarrien artean energia elektrikoa hornitzea eta petrolioaren fintzea daude.

Hilabete arteko aldakuntzak, 2020ko ekaina 2020ko maiatzaren gainean, berriz, bilakaera positiboa izan du industria-sektore handi guztietan, *Energiaren* kasuan izan ezik, % 0.9 jaitsi baita urtaroaren arabera ondorioak zuzendu ondoren. *Bitarteko ondasunak* % 19 hazi dira, *Ekipo-ondasunak* % 9,3 eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 1,9 igo dute ekoizpena, tamaina desberdineko bi hazkunderekin konbinatuta: *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 6,6 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrak*, berriz, % 1,0.

Índice de producción industrial de la C.A. de Euskadi. Sectores relevantes. Tasas de crecimiento interanual. Sectorización A-38. Datos provisionales

	m / m-12
SECTORIZACIÓN A38	
SECTORES RELEVANTES⁽¹⁾	
10 - Metalurgia y productos metálicos	-27,5
16 - Energía eléctrica, gas y vapor	-25,0
09 - Caucho y plásticos	-21,9
13 - Maquinaria y equipo	-11,4
14 - Material de transporte	-8,3
03 - Ind. alimentarias, bebidas y tabaco	-11,3
12 - Material y equipo eléctrico	-8,5
05 - Madera, papel y artes gráficas	-12,9

Datos corregidos de efectos de calendario

(1) Sectores con mayor peso en industria

Fuente: Eustat. Índice de producción industrial

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2020ko ekainean jaitsiera handienak izan dituztenak, urtetik urterako aldaketetan, honako hauek izan dira: *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 27,5 behera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 25,0) eta *Kautxua eta plastikoak* (% 21,9), egutegiaren ondorioak zuzendu ondoren.

Lurraldeetan, Industria produkzioaren indizearen ekaineko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan. Halatan, Araban % 14,8ko beherakada gertatu da, Gipuzkoan % 16,1ekoa izan da jaitsiera eta, azkenik, Bizkaian % 21,4koa.

Hilabete arteko terminoetan, 2020ko ekaina 2020ko maiatzaren aldean, behin zuzenduta urtaro-eraginak, ekoizpena % 25,5 hazi da Araban, % 18 Gipuzkoan eta, azkenik, % 10,5 Bizkaian.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Ekaina

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak	
	Eka2020 / Eka2019	A(Eka2020) / A(Eka2019)(*)	Eka2020 / Mai2020	Mai2020 / Api2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-17,8	-17,2	16,8	21,6
Araba/Álava	-14,8	-18,7	25,5	42,1
Bizkaia	-21,4	-17,3	10,5	15,3
Gipuzkoa	-16,1	-16,0	18,0	18,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-10,6	-8,2	1,9	18,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-17,2	-17,1	6,6	48,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-9,1	-6,1	1,0	13,2
Ekipo-ondasunak	-13,5	-18,0	9,3	57,7
Bitarteko ondasunak	-23,0	-22,0	19,0	27,0
Energia	-17,1	-4,1	-0,9	-6,2

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

COVID-19AREN KRISIAK EKAINEKO IPI-N DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Ekainaren 21ean amaitu zen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan deklaraturako alarma-egoera, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeari buruzkoa. Bertan hartutako aparteko neurriek eragin zuzena izan dute Industria Produkzioaren Indizean parte hartu duten establezimenduen jardueran.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten ahaleginagatik, zirkunstantziak gorabehera. Horiei esker, ekaineko indizea laginaren % **94,1eko** estaldurarekin kalkulatu da –informazioa uztailean jaso da–.

Egutegiaren ondorioak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabili diren ereduak COVID-19aren eragina barne hartzen dute aztertutako aldagaiaetan, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) emandako gomendioei jarraituz, Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis metodologia-oharrear.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62